



II URTIA + 90 ZENBAKIJAN  
BIDAYEN ITUNDUBA

BILBAO'N 1922'GKO URĪLA-21 AN

BILBAO, 21 DE OCTUBRE DE 1922

AÑO II + NUMERO 90  
FRANQUEO CONCERTADO

**EUZKO-GASTEDIJA'N**

"E. A.-B"REN LENDAKARIJAREN EUZKEL-ITXEIKIXUNA

Beste leku baten diñogun lez, osorik ipinten dogu emen Erasti'far Karme'l'k lengo igandian "Euzko-Gastedijan" egindako euzkel-itxeikixuna poliña:

Gixon, eta emakume aberizaliak: umiak:

Udaldija igesi dua, eta neguba bere ostian, bai-datoñ.

Zugatzetan orijak orituten asi dira, ta laster bai-lastar axe-boladeak eratziko dabez, luña of-belaz beteko dala.

Elyak sofkalderantza abija dea egin dabe ta egaiz duaz. Basoetan txoritxubak euren txiruli gozatsubak gitxituten dabez.

Baseri'farak ireak pilatzen eta egur-metak etxeaurian batzen asi dira.

Eguzki-izpijak in'ara galtzen dabe, egunak laburu ta gabak luzatuten duaz. Danak iragaf-tan dausku udaldija igesi ta neguba urian dogu.

Ba'ña guretzako, Jel-langilientzako, udea ta neguba bardiñak dira: aldi gustijak eta aro gustijak, Aberijari opa dautzoguz.

Udaldija igesi dua, eta neguba bere, ostian bai-datoñ. Neguban, ba'ña, udean baxen zintzo Aberi-aldez egin biar dogu, alik eta gaizkatu ta azkatu-arte.

Amatu-zorijan dagon udaldi onetan inoiz ba'ño gogorago, sakonago, ta ugarijago Jel-azija erein dogu.

Bizkai'ko eri gustijetara eldu gara ta euren lur jorijetan azi ona jausten itxi dogu.

Eta erneko da, bai, erneko da, Goiko Ereiliak inontz emokorañ jorituko dabezalako, Bera'k Aberijak azke bixi-ixateko softu dauz-eta.

Ba'ña gu ezkara besuak eunduta lotu biar, uztea bere zelan datoñan ikusten. Azija ereinda dago; ba'ña orain luña ondu ta saztu, bedar txar-ak joratu, ta pizti kaltekoetatik zaindu biar dogu, landarea mardul, lirain, lerdin eta bizkoñ softu datentzat.

Gero, udabarija etoriko da, ta landareak lora usaindunak emongo dabez, eta loreak ale ugar-ija, alelegija gonburuz betetako beste.

Orduban Aberija zorunduna ixango da ta udabarija guretzako ezti-pozkarija.

Oyanetan zugatzak orlegiz jantziko dira; aba-etan txorijak gogotsu abestuko dabe; eta aber-izalien bijotzak bular-baruban pozez beteko dira: Aberija'ren zoruna ikusiko dabelako.

Eta Sabin ma'ña bere egipenaz poztu ta gota-setuko da, ta bere oneskuna Donoki'lik bidalduko dausku.

Oretarako, ori loituteko, Euzko-Gastedi onek gaurko jaya ospatuten dau. Beragaz negu-lanak asten doguz.

Lan onetan gustijoen laguntza biar da, eta gure Gastedija'k emakumiei be geuria eskatu dausku. Eta guk poz-pozik eskiñi dautsogu, ta gogoz lan-egiteko gertu gara.

Gaur asten dogun ikastaro onetan, geronek ixan biar gara lenenak, eta bai-gara ixan be.

Geure Emakume Aberizale-Batza'ren bazkide batzuk euren ixena emon dabe irakasari ixa-teko.

Onei, neure bijotzetiko agurik sutsubena egin gura dautsot emendik, neure ixenian, eta eskar ugarijak emon Euzko-Gastedija'ren eta gure

Batza'ren ixenian. Onelan eskatu dauste ta poz-pozik eskarija beteten dot.

Ba'ña ikasliak be eskarak emon biar dautsedaz, geure deyari ain edeño erantzun dautsoelako, ta otoi bat egin biar dautset: ekin dayela gogoz ta sutsu, nekatu-barik, ikastarua amatu-arte.

Oñelan egiten ezpa-dozube, geure Gastedija'ren alegiña alperik galduko da ta gaurko jai begiko au ezta ezetariko gauza ixango; neure bijotzeko itz onek axe-boladeak eruango dauz, udagoienian ofbelak eruaten dauzan lez.

Ikastola onetan emongo dogun ikaskintzea, mota biñarikua ixango da, iragarkijetan ikusi dozuben lez: bixitxa irabazteko aldi onetan biñ-ezkuak diran gauzak eta aberizaleztat bere buruba esten daben gustijak jakin biar dabezanak.

Lenenguatat, biñezkuak diranezkeroko, eztoz ezer esango: ikasi gura eztabezanak eurek galduko dabe euren onurea.

Ba'ña bai bigarenetzaz zertxubait in'ardun biar dot, batez-be euzkel-ikaskintzeatzaz.

Ikastola onetarako zuben ixenak emon dozubenok, ez uste ixan urte erdiñan edo urtebetian erdutiaz bakañik naikua dozubela Euzkerea ikasteko. Ori ba'ño geyago balijo dau Euzkerea, ain eraz ikasteko. Ez jaramonik egin, ba, Euzkerea ikaste'raza dala esango dautzubenai.

Jayotzetik euzkeldun diranak eztañe zelako ogasun edeña dauken Euzkerea jakitiaz; ba'ña neronek bai-dakit ogasun ori loituteko zelako alegiñak egin biar-ixan dodazan: oregatik ma'ñago dot nik Euzkerea, amaren magalian ikasi eben batzuk ba'ño geyago. Zerofek be, inoiz ikasten ba-dozube, atsekabez loituten diran gauzak ma'ñe ixaten diran ga'raz, ma'ñe-ixango dozube.

Ostera, ba'ña, ez uste ixan Euzkerea ikasi-eziñ dala, askok esaten daben lez. Euzkerea ikasteko aberizaleztasuna bakañik biar-da.

Eta orixe da neuk zuberi eskatzen dautzubenadana: Euzkerea ikasteko biar dan beste aberizaleztasuna euki dagixubela. Ba-daukozube, zifnez ikasiko dozube. Ezpa-daukozube, eztozube ikasiko.

Onegaz naikua ixango zan neure biñara amatuteko; ba'ña eztoz amatu gura emakume aberizaliei itz batzuk esan-bañik.

Gixonik geyenak, eta emakumerik geyenak be, zoritzañez, emakumia ezala Aberi-gaizka-kunde onetan sartu biar uste ixaten dabe, au politikia dalako ta emakumia sukalderako bakañik menduba ixan biar dalako.

Neuk dirautzuben ori uste dabenak oker uste dabela.

Aberija gustijoena da, bai gixonena ta bai emakumiena; eta bere biñak gustijai dagokiguz. Aberija'ren zorijona emakumiagana be eltzen da, ta bere zoritzaña, sañitan, gixonai ba'ño sakonago.

Sukalderako emakumia menduba ixan biar dala, nik eztoz ukatuko, alantxe da-ta. Ba'ña sukaldean, amaika negar urten dira emakume euzkeldunen begijetatik, Aberija'ren joputasunak erakariña.

Aberija'ren gaizkakundiak biñatuten etziñubela uste dozuben emakume ofek, ez leku onetara etofi, ez gixon aberizaliakin batera ekin Aberi-gaizkakundian.

Ba'ña semia eruaten ba-dautzube urñiera, inoren aberijaren alde odola emoten, zubena aldeztuten jakin eztozubelako, ez negarik egin; zuben erubaren zigoña lepalдутen dozubelako.

**La fiesta del domingo en "Juventud Vasca"**  
**APERTURA DE CURSO**

Un solo anuncio, la víspera de la fiesta, bastó para que los salones de Juventud Vasca de Bilbao se viesan el pasado domingo llenos de patriotas entusiastas, que no se cansan nunca de contribuir con su presencia a dar realce a todos los actos organizados por nuestra querida Sociedad, que, fiel a su tradición, sigue su carrera triunfal en pro del renacimiento euzkadiano.

Y es que la fiesta del domingo, era el marco precioso en que Juventud Vasca encerraba el cuadro brillante de una propaganda activísima, llevada a cabo el pasado verano por todos los rincones de la Patria; y la iniciación vigorosa de una nueva campaña invernal, que ha de poner digno remate a la labor infatigable de nuestra Junta directiva.

Así fuimos el pasado domingo a Juventud, a premiar con nuestros aplausos los afanes y los desvelos de quienes han sabido poner todo su cariño y todo su entusiasmo al servicio de la Patria.

Pocas veces hemos asistido a una fiesta tan sencillamente simpática y llena de emoción. Se trataba en ella de inaugurar solemnemente las clases de invierno, organizadas por "Juventud Vasca" de Bilbao y "Emakume Aberizale-Batza", su entidad filial más entusiasta y poderosa, a pesar de su corta existencia.

No era aventurado esperar que, con tales elementos, esta fiesta de apertura del curso, habría de tener un éxito brillante y rotundo, que dejase en todos los asistentes el recuerdo más grato.

Pero la esperanza fué superada por la realidad. Las manos de los patriotas, juntándose en aplausos efusivos, lo demostraron así.

Pocas palabras podemos decir del interesantísimo programa desarrollado, por impedirnoslo el corto espacio de que disponemos, pidiendo, por ello, mil perdones a todos cuantos en el mismo tomaron parte tan valiosa y activa.

El sexteto de Juventud Vasca, ejecutó con su acostumbrada maestría varias composiciones vascas de verdadero valor, entre ellas el «Alta gastiak» de Beobide y «Tres preludios vascos de Franco», que fueron premiados con ovaciones entusiastas.

Iguals aplausos consiguieron con sus canciones vascas, cantadas con gusto irreprochable, el tenor don Domingo de Egiá, la mezzo-soprano señorita Teresa de Zabarte y la soprano señorita Carmen de Zabarte, que dieron a la fiesta gran relieve con el encanto de sus voces.

El Coro infantil de Juventud Vasca, nos ob-

sequió con la plegaria y los cantos de "Bide onera", y la preciosa composición del maestro Guridi, "Mendirik-mendi".

Tan bien lo hicieron, que todos quedamos con verdaderos deseos de poder volver a oírlos en la representación de esa zarzuela de Etxabe, que el Cuadro dramático de Juventud nos anuncia para próxima fecha.

Ocupaban la mesa presidencial la señora doña Carmen de Erasti y la Sta. Alicia de Aretxabaleta, en representación de "Emakume Aberizale-Batza"; don Elías de Gañestegi y don Manuel de Egileor, por Juventud; y don Adolfo de Lañáñaga, encargado de hacer la dedicación de la fiesta.

Cuando la señora Presidente de "E. A.-B.", se levantó para leer su discurso de apertura, fué acogida con una cariñosa ovación, que se repitió prolongadamente al terminar su discurso. Este fué dicho en elegante y correcto euzkera, en términos tan patrióticos y elocuentes, que nos honramos reproduciéndole íntegro en la sección euzkérica de nuestro semanario y para satisfacción de nuestros lectores euzkeldunes.

Don Adolfo de Lañáñaga, con su estilo tan poético, ameno y agradable, hizo la dedicación de la fiesta, con frase tan acertada y feliz, que fué premiado con una ruidosa ovación. No podemos seguir al orador en su elocuente discurso, ni nos es dado reproducirlo íntegro, como fuera nuestro deseo, por las razones al principio apuntadas.

Solo diremos que de la enunciación de cada una de las clases—cuyos detalles damos ampliamente en otro lugar—supo sacar enseñanzas prácticas y provechosas, poniendo a cada una de ellas un comentario patriótico acertado, y demostrando con ello que al cultivar nuestro espíritu, debemos hacerlo siempre a mayor gloria de la Patria. Tuvo frases felices de ensalzamiento a la mujer patriota.

Terminó la velada con unas frases del señor Gañestegi, encaminadas a recomendar a todos la constancia y patriotismo necesarios para terminar el curso con provecho.

Las notas del Himno Vasco, iniciadas por el sexteto de Juventud, fueron coreadas por todos los asistentes, de pie y descubiertos, como es costumbre en todos los actos de Juventud Vasca.

Nosotros no podemos terminar esta breve reseña, sin enviar nuestra más cordial enhorabuena a Juventud Vasca, a «Emakume Aberizale-Batza», y a todos cuantos tomaron parte directa en tan grata fiesta.

**El domingo, 5 de Noviembre,**  
**inauguración de la temporada teatral, con la zarzuela de**  
**nuestro amigo Etxabe, titulada**  
**'BIDE ONERA'**